

# GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2021/22 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

## Gradu Amaierako Lana / Master Amaierako Lana

### Izenburua

Bioerretentzio eremuaren eraikitze-proiektua Ibaetako Campusean.

### Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

Proiektuan bioerretentzio eremu baten eraikuntza proiektua gauzatuko da, Ibaetako Campuseko errepide edo beste eremu bateko euri urak kudeatzeko diseinatuko dena. Bioerretentzio eremua SUDS edo Hiri-drainatze sistema jasangarri mota bat da, euri-ura bolumen zein kalitate ikuspuntutik kudeatzeko gai dena, saneamendu sarera isuri aurretik.

Proiektuak honako fase eta atal hauek izango ditu:

- (a) egungo sareari buruzko informazio bilketa
- (b) egungo eremuaren infiltrazio neurketak
- (c) antzeko elementuen informazio bilketa, baita horietan erabilitako materialen ezaugarriak ere
- (d) eremuaren disenu hidrauliko-hidrologikoa
- (e) eremuak eragindako hobekuntzen karakterizazioa kalitate zein sarera isuritako bolumenaren aldetik
- (f) aurrekontua
- (g) mantentze lanen aurreikuspena

Disenu hidrauliko-hidrologikorako SWMM (Storm Water Management Model) erabiliko da, bolumen eta kalitate eraginkortasuna karakterizatzeko. SWMM sanemanenduko sare urbanoak aztertze mundu mailan oso erabilia den modeloa da.

Irizpideak bateratzeko eta sinergiak areagotzeko, Ibaetako Campusean eta Leioako Campusean egingo diren antzeko proiektuekin lankidetzan egingo da proiektua, guztiak ere Campus Bizia LABen EHU suds proiektuaren barruan.

## **Campus**

*Gipuzkoa (Donostia)*

## **Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)**

*Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola*

## **Titulazioa**

*Ingeniaritza Zibileko Gradua edo Ingeniaritza Mekanikako Gradua*

## **Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza**

Gaztelania / Euskara

## **Irakasle arduraduna**

**Maddi Garmendia Antín**

## **Posta elektronikoa**

maddi.garmendiaa@ehu.eus

## **Campus Bizia Lab (CBL) proiektua**

**EHUsuds**

## **CBL proiektuaren webgunea**

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehusuds>